

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2011ko irailaren 9a. VIII. urtea. 2.270. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Leitzako alkateak eta bi herritarrek inputaturik jarraitzen dute

Hiru leitzarrak atzo pasa ziren epailearen aurretik Madrilén; herrian lanuzteak eta elkarretaratzeak egin zituzten **7**



Sarriopapeleko hainbat langile kalera irten ziren atzokoan. I. TERRADILLOS



Boleibol partidek agurtuko dute uda Plaza Berrian

Tabernarien Ezpeleta elkarteak antolatu du bigarren aldiz festa; irabazleek ez ezik, talderik originalenak ere saria jasoko du **2**

→ Eskualdeko bost herritan jaiak ez dute atsedenik.

Lizartzan, Bedaion, Zizurkilen, Elduainen eta Alkizan jaiak ospatzen ari dira egunotan. Haur zein helduek izan dute festaren lehen egunez goatzeko aukera, eta igandera arte ere egitarau zabala izango dute herri guztietan **4-5**

Azoka berezian elikagaiak eta eskulanak erosteko aukera izango da

Villabonako Irrintzi elkarteak antolatu du bihar goizean Txermingo Ikastolan egingo den azoka; 36 postu baino gehiago espero dituzte **6**



Bost segundoko erronka izango dute igandean, Getaria-Tolosako neskek

Arratsaldean, bandera irabazi edo ez, harrera ofiziala egingo zaie Plaza Zaharrean 18:00etan

I. Urkizu Tolosa

Igande eguerdian hil edo biziko estropada jokatuko dute Getaria-Tolosako neskek, Donostiako uretan. Kontxako Banderaren bigarren jardunaldian, Zumaiaiko taldearekiko galduak dituzte bost segundoak errekuperatzen saiatuko dira.

Joan den igandean, itsasoa harro ibili zen, eta estropada eremu-ko lau kaleen arteko desberdintasuna nabarmena izan zen, bai emakumezkoen estropadan, bai

ta gizonezkoen ere. Getaria-Tolosako neskek ez zuten zortetik izan, eta lehenengo kaletik egin behar izan zituzten lanak; hantxe puskatzen ziren olatuak, eta poparean izan zituzten zailtasun handienak. Hala eta guztiz ere, 11:12ko denborarekin sartu ziren helmugan; 11:11ko denbora markatu zuen Galiziak, eta 11:07koa Zumaiaiko traineruak.

Denboraldia nola joan den ikusita, itxaropentsu daude neska tolosarrak, eta bost segundoko zulo horri buelta emanaz, bandera preziatua lortu nahi dute.

Harrera ofiziala arratsaldean

Igande arratsaldean, harrera egingo zaie arraunlariei. 18:00etan izango da ekitaldia, Plaza Zaharrean. 17:30ean kalejira abiatuko da Triangulotik.

→ Laburrak

Anoetako Euskal Jaieguna prestatzeko bilera

ANOETA › Datorren urriaren 9an, Euskal Jaia izango da Anoetan. Eguna prestatzeko, bilera antolatu dute datorren irailaren 13an, asteartea, 19:00etan. Udaletxean izango da, eta herri-ko taldeak eta herritarrak berratarzera animatu nahi dituzte antolatzaileek.

Menchu Gal-en erakusketa ikusteko azken aukera

TOLOSA › Azken egunak dira Menchu Gal margolari irundararen *Kolorearen poza* erakusketa ikusteko. XX. mendeko artista landu eta sendoenetako bat izan zen Menchu Gal, eta maisu handiak izan zituen. Aranburu jauregian ikus daitezke bere koadroak arratsaldeko 17:30etik 20:30era bitarte.

Alpino Uzturren mendi irteera Burgosera

TOLOSA › Alpino Uzturre Elkarteak irailaren 17 eta 18rako mendi irteera bat antolatu du. Txangoak Burgos probintziako Pineda de la Sierra inguruan izango dira. Mencilla, San Millan eta Trigaza mendiak igoko dituzte. Irteera San Frantzisko-tik 06:30ean izango da. Bazkideek 45 euro ordaindu beharko dute autobusa, eta bazkide ez direnek 50 euro. Izena emateko, bi modu daude: 943 65 27 89 edo alpinouzturre@hotmail.com.

Salgai dira auzo bazkariako txartelak

URKIZU › Datorren irailaren 24an auzo bazkaria izango da Urkizun. Txartelak salgai daude jada. Helduen bazkariak 35 euroko prezioa izango du, eta gaztetxoek bazkariak, berriz, 15 eurokoa. Interesa dutenek, dei dezatela 652 70 96 80 telefonoa.



Ezpeletako ordezkariak, Tolosako Udaleko ordezkariekin batera egin zuten aurkezpena. **I. URKIZU**

Udari agur esateko kirola, musika eta festa izango da Plaza Berrian

Ezpeletako tabernariak barra bat jarriko dute plazan, eta zozketak egingo dituzte bezeroen artean

Itzea Urkizu Tolosa

Uda amaiera badator, eta tabernariak Ezpeleta elkarteak, bigarren urtez, uda bukaerako festa antolatu du Tolosako Udalaren laguntzaz. Atzo izan zen gaztetxo-eren txanda, eta gaur eta bihar, helduen boleibol txapelketa izango da Plaza Berrian jarri duten hondarrezko eremuan.

Tabernariak azaldu dutenez, iaz baino jende gehiagok eman du izena aurtengo boleibol txapelketarako: «Jende askok galdetu digu boleibol txapelketaren inguruan», dio Ixa Iglesiasek. Horrela beraz, guztira 32 talde ariko dira

Plaza Berriko hondarrezko eremuan.

Talde bakoitzak lau jokalaria izan beharko ditu, eta aldaketa bat bakarrik egin ahal izango dute. Hiru set irabazten dituen taldeak, partida irabaziko du.

Heldu eta gazteentzako

Gaztetxoek atzo izan zuten Plaza Berrian kirola egiteko aukera, hondartzako 3x3 futbolarekin. 2002 eta 2003 urteetan jaiotako neska-mutilak aritu ziren, 16:00etatik aurrera.

Gaur, berriz, 10:00etan hasita, hondartzako boleibol partidak izango dira eta final zortzirenak jokatuko dituzte.

Bihar, larunbata, 12:00etan emango zaie hasiera partiduei, final laurdenekin. Arratsaldeko seiak inguruan, finalaurrekoak jokatuko dituzte, eta ondoren, suzko malabareak ikusi ahal izango dira. Azkenik, finala

20:00ak inguruan izango da: «Reallaren partida dagoenez, finala amaitu ondoren egitea pentsatu dugu, jende gehiago etor dadin», diote antolatzaileek.

Partidek irauten duten bitartean, DJa eta hizlaria arituko dira giroa animatzen. Bide beretik, Ezpeleta elkarteak barra bat jarriko du Plaza Berrian bertan, eta bezeroen artean zozketak egingo dituzte; kubatak, afariak, eta antzekoak izango dira opari.

Sariak ere bai

Boleibol txapelketako jokariak ere izango dute beren saria. Txapelduordeentzat 19-90 tabernan afari bat izango da, eta txapeldu-nentzat, berriz, Solana 4 tabernan. Gainera, talderik originale-na ere saritua izango da.

Azkenik, aipatzekoa da, udalak larunbat gauean tabernak ordu bete gehiago irekita izateko baimena eman diela tabernariari.

Iragarki laburrak

SALGAI

• **Etxebizitza.** Tolosan, bi logela, egongela, sukalde, komuna eta trastelekua dituen hormigoizko etxebizitza salgai. Oinartee biltzera sartzeko moduan dago. Prezioa 195.000 euro. Interesatuak deitu 619 64 52 56 telefono zenbakira.
• **Quad-a.** 2004 urteko Suzuki LTZ-400 quad-a salgai. IAT pasatu du, osagarri asko ditu eta oso egoera onean dago. Interesatuak deitu 600 752 537 telefono zenbakira.

GALDUTAKOAK

• **Txakurkumea.** Setter ingeles

arrazako zakurkumea galdu zen irailaren 1ean, Anoetako hilerriaren inguruan. Zuri-beltza da eta bost hilabete ditu. Ikusi edo aurkitu duenak mesedez dei dezala 615 72 90 86 telefono zenbakira. Eskertu egingo da.

LANA

• **Monitorea.** Kirol monitorea behar dugu Lekunberrin, Larraunen eta Araitz Betelun egin behar diren kirol jarduerak aurrera eramateko: aerobik, pilates, spinbike... Ongi ordaintzen da. Urrian hasteko. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 948 50 73 77. Bidali ezazu

curriculum ondorengo helbide elektronikora: plazaola@soysana.com.

• **Lan bila.** Tolosaldeko emakume euskalduna naiz. 55 urte ditut, eta lan egingo nuke lau edo sei orduz, goizez edo arratsaldean, denda, taberna edo etxeak garbitzen. Kotxea daukat. Adinekoak edo haurrak zaintzen ez dut aritu nahi. Nirekin harremanetan jarri nahi duenak, dei dezala 685 73 60 09 telefono zenbakira.

• **Lan bila.** Alegiako neska euskalduna, haurrak zaintzen edo etxe lanak egiteko eskaintzen da. Interesatuak deitu 690 64 34 94 zenbakira.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Gazteen lan munduratzea errazteko hitzarmena sinatu dute

Babarrun ekoizleen elkarteak, udalak eta Ino Jauregi lurjabeak formakuntza programa jarriko dute martxan

Erredakzioa

Tolosako Udala «herriaren sustapen ekonomikoa eta garapena bultzatzeko helburuarekin», gazteen lan munduratzea errazteko urratsak eman nahian dabil. Horretarako, *Babarrungileak*: ikusmugak eraiten programa jarri du

martxan. Akordioa, atzo sinatu zuten Ibai Iriarte Tolosako Alkatetik, Mari Carmen Iradi Tolosako Babarrun Ekoizleen Elkartearen Presidentetik eta Ino Jauregi lurjabeak.

Honen arabera, udalak aukeratu dituen hainbat ikasle formakuntza lanetan murgilduko dira, Tolosako jatorrizko deiturako babarrunaren ekoizpena eta komertzializazioa lan eremutat hartuta.

Udalarekin sinatu duen hitzarmenari jarraituz, Ino Jauregi 13.000 m²-ko lursaila alokatuko dio udalari. Aurrez ordea, baba-

rrun hazia eta artoa ereingo ditu bertan.

Babarrun Ekoizleen Elkarteak ekoizleari zein udalari aholkularitza teknikoa eskainiko dio proiektu osoan zehar, eta azkenik, ikasleentzako txanda izango da. Hauek, babarrun bilketarekin hasiko dira, ondorengo urratsetan ere protagonista izateko, beti ere, ekoizpenari eta komertzializazioari buruzko ikasgaiak ateratzeko.

Proiektua amaitzean, eta Jauregi horrela eskatuko balu, lursaila hasiera batean zegoen egoerazko konpromisoa hartu zuen udalak.

Intujairen eskutik iritsiko da 'Zikloia!' Tolosako txoko eta tabernetara

A. Imaz

Intujai Antzerki taldeak *Zikloia!* antolatuko du irailaren 11 eta 12 urriaren artean. Egitarau opor bati esker, ikuskitu ahal izango da Tolosako taberna eta txokoak. Lehen, bihar bertan izango da, Plaza Berrian, 19:30etik aurrera. Biribil Zirkok *Noche de fuego* emanaldia eskainiko du.

Emanaldiez gain, Klown ikastaroa ere antolatuko dute, Ana Perezen eskutik. Urriaren 1ean eta 2an izango da kultur etxean. Informazio gehiagorako 647 20 14 01 zenbakira deitu behar da.

↓ Egitaraua

BIHAR, HILAK 9

■ **19:30ean.** Plaza Berrian Biribil Zirkok taldearen *Noche de fuego*.

HILAK 22, OSTEGUNA

■ **22:30ean.** Orbela Tabernan Edurne Agirrezabalak.

HILAK 23, OSTIRALA

■ **22:30ean.** Iratxo Tabernan Badut Pollo Rosa produktzioak eta May Gorostiagak.

HILAK 30, OSTIRALA

■ **22:30ean.** Kultur etxean Kabareta: Tic-Tac; Jon Magik eta Suyanema.

URRIAK 14, OSTIRALA

■ **23:00etan.** Kikara tabernan Alex Rabanal.

LABeko jubilatuko eta pentsiodunak batzar irekia egingo dute asteartean

Kultur etxean hainbat gai aztertuko dituzte 10:30etik aurrera, ondoren, enkartelada egingo dute, 12:30ean

A. Imaz

LAB sindikatuko jubilatuko eta pentsiodunek herritar guztiak gonbidatu ditu asteartean, hilaren 13an, egingo duten batzar irekia. Tolosako kultur etxean elkartuko dira 10:30ean, eta bertan egunerokotasuna duten hainbat gai eztabaidatuko dituzte: osasun publikoa; fiskaltatea, gizarte zerbitzuak eta pentsioen erreforma, besteak beste.

Batzarraren ostean, 12:30ean, kalera irtengo dira enkartelada egitera.

«Pentsiodunen herena larri»

LABeko jubilatuko eta pentsiodunek hainbat sindikatu eta alderdi politikoren jarrera salatuko dute: «urteetan langileen lana eta borroka eskertu gabea garaipen sozialak ezabatu, murriztu eta birrindu dituzte azken boladan, erreforma desberdinak medio. Hori bai, CCOO eta UGTren laguntzaz, eta PP, PSOE, EAJ eta UPNren babesarekin». Horren ondorioetako bat, egun pentsiodunek bizi duten egoera dela azaldu dute: «Euskal Herrian, jubilatuko zein pentsionisten herena pobrezia mugan bizi da bultzatu dituzten murrizketak eta pribatizazioen ondorioz». Azkenik, erantzun «sendo» bat emateko garaia dela azaldu dute, horregatik gonbidatu dituzte herritarrek astarteko batzar irekia.

Irudia



LAN ISTRIPUEN AZKENA ESKATU DUTE

Euskal gehiengo sindikalak deituta elkarretaratzea egin zuten, atzo eguerdian, Tolosako udalarekin aurrean. Alde batetik, asteartean Aldaba Txikin AHTren lanetan zendu zen langilearen sendiari elkartasuna azaldu zieten, eta bestetik, lan

istripuekin amaitzeko «prekarietatearekin» amaitu beharra dagoela aldarrikatu zuten. Tolosako Bilduk bat egin zuen deialdiarekin. Atzo arratsaldean, AHT Gelditu! Elkarlanak deituta, Trianguloan beste elkarretaratze bat egin zen. A. IMAZ



XIV. HITZA Udako argazki lehiaketa



Landetxe polit batean bi pertsonentzako **bi gaueko egonaldia**



Tolosako Karlis estudioan **argazki erreportaje bat**



Astelena jatetxean bi pertsonentzako **otordua**



Pertsonako argazki bakarra bidali daiteke **thargazkiak@hitza.info** helbidera

Bidali zure argazkiak irailaren 23a bitarte!

Festak hasi dira, eta asteburu guztian jai giroa izango da nagusi Alkiza, Bedaio, Elduain, Lizartza eta Zizurkilen. Herri kirolak, musika, jolasak, dantza, jana eta edatekorik ez da faltako hurrengo hiru egunetan.

Festarako gogoia bada...

Eneritz Maiz

Herriko jailetan ondo pasatzeko, festarako gogoia izaten bezala korik ez dago. Umore ona lagun hartu, irribarre bat aurpegian murrutu, eta datorrenari aurre egiten zaio. Berperako ajea, lo falta eta neketa, jai giroan sartu bezain pronto ahaztu egiten dira. Hori bera pasako zaie alkizar, bedaioar, elduaindar, lizarzar eta zizurkildar guztiei. Indarrak ondo neurri, eta asteburu oso-oso hat dute aurretik.

Zizurkilen eta Lizartzan dagoeneko bi egun pasa dituzte. Alkizan, Bedaio eta Elduainen berri- atzo eman zieten hasiera. Atzoko eguna, herri gehienetan haurrei edo jubilatuak zuzendua izan zen. Alkizan, goizean eman zieten hasiera haurren toka txapelketa eginez. Arratsaldean, jolasak eta Xixi nagua izan zituzten. Jubilatuak berriz, bazkari ederri izan zuten. Herri afariaren ostean berriz, trikiti dominoak alaitu zuten gusa.

Zizurkilen ere eguneko izarrak haurrak izan ziren, goizean jolasak, eta arratsaldean Purritx eta Perotx jaiak izan ziren. Hilduen- trat, bertso saio bikaina ere izan zen. Iluntzean, Drindots taldeak jai zuzen dantzarako musika.

Elduainen suzirrik, lebertu- os- tean, hamaitakoa izan zuten. Arratsaldean berriz, haurrek antzerkia egin zuten, eta ondoren Porpolo eta konpainia izan ziren. Lizartzan atzoko eguna dianare- kin hasi zuten, eta hamaitakoa bertsoari-ekin, eta ondoren, hel- duen bazkaria izan zituzten. Hau- rrek antzerkia ikusteko aukera izan zuten. Dantza saioa eta herri afaria ere egin zituzten.

Bedaioarrek berriz, lehenik eta behin hamaitakoa eta baz- karia izan zituzten. Muñoa eta Gorostidi bertsoari-ekin. Trikiti dominoak ere ez zen faltatu, egu- neko nahiz gauet. Arratsaldeko jai- lota partiden ostean, zahagiardea izan zuten.

Beraz, eskualdetik atera gabe, festak gozatzeko bada aukera,



Jolasen hasteko, herri kirolak egin behar izan zituzten alkizako txiki-ekin. I. MAIZ



Pupu eta Lore, zizurkildarekin izan ziren, etxo. I. MAIZ



Lizartzan eta Bedaioan, hamaitakoa ere ondoan, jubilatuak bazkaria izan zuten. I. MAIZ



Elduaingo frontolan, herriko haurrek dantza eta antzerkia uzartu zituzten. Jaiak, berak, Porpolo eta konpainia izan zituzten. I. MAIZ

ARRASTOA 1^a
Jai Zoriontsuak
izant!

Artisan Jorgitak

Calidad
Peugeot Sarean,
prezioa eta kalitatea parean

Kalitate: Zerbitzu profesionalak / Osoko azoketa 28 puntutan / Pneumatikoen bermea
Prezioa: Eskatu aukeratu eta berritasunak gehiago ez duela bako kasko dugu.

Eskatzen duzuego
kontakortu bide du:

TOLOSA MOTOR, S.A., San Esteban auzoa, 16-A • 20100 TOLOSA • Tel. 943 650 337 / Fax: 943 652 938 • tolosa@tolosa.peugeot.com

Festetako egitarauak

ALKIZA

Gaur

- 16:00. Futbol partidak, In- txaurand baserri inguruan egingo dituzte.
- 20:30. Barrikotxa.
- 23:00. Bertso jaiak: Sebas- tian Lizaso, Angel Mari Peñaga- rikano, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Iker Zubeldia eta Igor Eitortza. Gai jartzailea: Amaia Agirre.
- Ondoren, Kontzertua Blaka eta Jostion taldeekin.

BEDAIO

Gaur

- 16:30. Jon Magli magoaren ilusiozko jai izango da.
- 18:00. Alegakio Sutarri dan- tza taldearen emanaldia.
- 21:00. Zahagiardea egingo dute.
- 23:00. Erromeria Elustondo anai-arrebekin.

ELDUAIN

Gaur

- 11:00. Meza Nagusia. Ondo- ren, haurren puzgariak plazan.
- 14:00. Herri bazkaria fronto- lan.
- Ondoren, Triki- bertso poteoa, Niko, Urni Muñoa eta Bixente Gorostidi-ekin.
- 00:00. Zereiz Mukaki, Gose eta disko festa plazan.
- 00:00. DJ Bui, Urdelar elkar- tean.

LIZARTZA

Gaur

- 10:00. Diana Karobitxulo tal- dearekin.
- 12:00. Tortilla lehiaketa eta toka txapelketa herrikoia egin- go dituzte.
- 16:00. Txokolatada.
- 16:30. Haurrentzako puzga- riak izango dira.
- 19:00. Orsolar dantza taldea- ren emanaldia.
- 22:30. Kantaldia Ane Badiola, Irati Odriozola eta Jose Leon Amigorekin.
- 00:00. Erromeria Joxpa musi- ka taldearekin.

ZIZURKIL

Gaur

- 11:00. Haur Jolasak.
- Ondoren, Buruhandiak ateraka- ko dira.
- 11:30. Meza Nagusia.
- 11:30. 3x3 saskibalo txapelke- tako finala (Ugare auzoko kan- tran).
- 13:00. Herriko haurren euskal dantzen ikusketak.
- 14:00. Gazte bazkaria.
- Ondoren, Gazte jokoa.
- 17:30. Libertia haur antzerkia izango da. Auzoera plazan.
- Ondoren, Txokolatada egingo dute.
- 19:00. Kale musika, Afrika Baj Yaky herriari zehar.
- 23:00. Kontzertuak: Kodigo Norte, Deskontrol eta Muiyayo Rik taldeekin.

Eskuz banakako partida erakargarriak, Joxean Tolosa Txapelketaren finaletan

Anartz Olano aresoarra, kadeteetan, eta Erik Jaka lizartzarra, gazteetan, dira eskualdeko ordezkariak

Imanol Garcia Amezketara

Udan hainbat partida jokatu ondoren, XXII. Joxean Tolosa Txapelketaren finalak iritsi dira. Etzi, igandea, 17:00etan, hasiko dira hiru partidak Amezketako frontoian: kadete, gazte eta nagusien mailan. Eskuz banakako partida erakargarriak izango dira, maila bakoitzeko pilotari onenetarikoek parte hartzen baitute finaletan. Anartz Olano aresoarra, kadeteetan, eta Erik Jaka lizartzarra, jubeniletan, izango dira eskualdeko ordezkariak.

Olanok Irribarria izango du aurrez-aurre. Jakak Rezustaren aurka jokatuko du. Eta nagusien mailan Arzelus eta Ezkurdia ariko dira elkarren aurka. Xalton Zabalak, txapelketa antolatzen

duen Zapzi-Iturri pilota elkarte-ko arduradunak, kadeteetan eta gazteetan izandako maila nabarmendu du. Horren erakusgarri, aurreko ostiralean frontoia bete- ta egon zela gogora ekartzen du: «Jendeak erantzun du, konturatu baita maila handiko pilotariak daudela».

Zabalak Irribarria, Jaka eta Ezkurdia ikusten ditu faborito. Bestalde, pozik dago Zapzi-Iturriko hiru pilotari finaletan daudelako: «Kadeteetan, Irribarria ariko da; gazteetan, Jaka eta nagusietan, Arzelus. Finalerdietan lau pilotari zeuden eta horietatik hiru pasatu dira finalera». Txapelketan «oso ondo» pasatu dutela azaldu du, eta pilotariak ere gustura ari- tu direla.

Final gogorak espero dituzte Anartz Olanok ondo ezagutzen du Irribarria. «Betidanik izan gara aurkariak eta elkarren joko- a ondo ezagutzen dugu», dio areso- arrak. Finala «gogorra» izango dela uste du.

Bi pilotariak ezkerrek dira, eta

horrek joko- a baldintzatuko du. Halere, biak ondo aritzen dira de- fentsan eskuinarekin. Sakeak ere bere garrantzia izango du. «Sakea hartzen duenak abantaila izango du», dio Olanok. Aresoarra gustu- ra dago egindako txapelketare- kin: «Ez da partida errazien izan. Ondo joan da txapelketa eta ea fi- nala ere ondo joaten den. Saiatu- ko gara, behintzat, irabazten», gaineratu du.

Erik Jakak ere finala «zaila» izango dela dio. «Irabazteko auke- ra izango dudala espero dut, eta hori aprobetxatzen saiatuko naiz», esan du lizartzarrek. «Hale- re, kontuan izan behar da Rezus- tak erakutsi duen maila, eta txap- elketatik kanpo utzi dituen pilo- tariak».

Jaka eta Rezusta ere ondo eza- gutzen dira. Bikote izan ziren GRAVN txapelketan, Gipuzkoa ordezkatzeko, eta batera ibili izan dira entrenatzen. Jakak ez du gehiegi pentsatzen finalean egin- go duen jokoaz: «Unean bertan erabakiko dugu zer egin, eta espe- ro dugu erabakiak ondo hartzea».

Elikagaiak eta artisautza, azoka berezian

Irrintzi elkarteak antolatuta, gutxienez 36 postu egongo dira bihar goizean, Txermingo Ikastolan

I. Garcia Villabona

Irrintzi elkarteak beste behin, ha- maseigarren aldiz aurten, Elikaga- gaen Azoka Berezia antolatu du. Bihar goizean, Txermingo Ikasto- lan gutxienez 36 postu izango dira, bai elikagaienak eta baita ar- tisauenak ere. 10:00ak inguruan jarriko da martxan azoka eta 14:00ak arte izango da zabalik.

Urtero bezala denetarik izango da postuetan: gozoak, eztiak, kon- tserbak, txokolatetako, likoreak, hestebeteak... Aurten, berritasun gisa, inoiz baina artisau gehiago izango dira. Villabonako Udalak hiru sari emango ditu azokan par- te hartzen duten postuen artean. Lehenengo saridunak 250 euro ja- soko ditu, bigarrenak 150 euro eta hirugarrenak 100 euro.

Irrintzi elkarteak ere bere pos- tua jarriko du. Bertan, bi euro or- dainduz pintxoak eta edaria dasta- tzeko aukera izango da. Txorixo eta gula pintxoak izango dira au- keran. Edateko, txakolina, ardoa edo ura. Horrez gain, Tolosaldea Tourrek informazio gune bat ja- rriko du.

Isats Gisatuaren Lehiaketa

Azoka bereziarekin batera, ohi denez, Aiztondo bailarako hain- bat elkarteren artean Isats Gisa- tuaren Lehiaketa egingo dute. Irrintzi elkarteaz gain, Villabno- nako Behar-Zana eta Zumbeltz el- karteek, Amasako Uxo-Tokik eta Asteasuko Aitzondok parte har- tuko dute.

Irrintzi elkarteak partaide ba- koitzari plateraren osagai nugu- sia ematen die, eta gero dieta bat beste osagaiak erosteko. Elkar- tek 12:00etarako eraman behar dute prestatutakoa Txermingo Ikastolara. Bertan, berotu, eta epaimahaia hasiko da dasteketak egiten. Irabazleak garaikurra ja- soko du.

Intxurre elkarteak lehenengo Koba Tours Torneoa irabazi du

Goierrri Futbol Taldearen aurka jokatu zuten alegiarrek, eta hiru partida irabazi eta bi galdu zituzten

I. Garcia Alegia

Denboraldia hasi aurretik, txap- elketa berri bat jokatu du Ale- giako Intxurre futbol elkarteak: I. Koba Tours Torneoa. Goierrri fut- bol taldearen aurka jokatu zuen aurreko larunbatean, Segurako Alustiza futbol zelaian. Intxurre- koek hiru partida irabazi zituzten eta bi galdu; beraz, torneo berria- ren lehen irabazlea izan da Ale- giako elkarteak.

Egun osoko txapelketa izan zen. Goizean hiru partida jokatu ziren, eta hiruak irabazi zituen In- txurrek. Neskek 0-2 irabazi zioten Aitzgorri taldeari; infantil muti- lak 0-8 gailendu zitzaizkien Aitz- gorrikoei, eta kadete mutilak 0-1 irabazi zieten Aitzgorrikoei. Arratsaldean beste bi partida izan ziren: jubenilek 3-0 eta erre-



Kadete mailako neskek, Koba Tours Trofeoko garaikurrarekin. PATXI RENOBALES

gional mailakoek 4-0 galdu zuten Seguraren aurka.

Intxurre elkartetik nabarmen- du dutenez, nesken taldeak lehe- nengo aldiz jokatu zuen hamaika futbolariarekin, eta «oso ondo» mol- datu ziren eta gainera partida ira- bazi zuten».

Bide batez, Goierrri Futbol Tal- deari eskerrak eman dizkiete txap- elketara gonbidatzeagatik eta zoriondu egin diete erakutsitako antolakuntzarengatik. «Oso egun polita pasatu genuen larun-

batean», gaineratu dute Alegiako futbol elkartetik.

Deialdia nesken taldeentzako

Intxurre elkarteak deialdia egin du kadete mailako nesken talde- an parte hartzeko. Futbol zelai handian eta hamaika jokalarire- kin jokatze-ko taldea osatuko dute lehenengo aldiz. 1996an eta 1997an jaiotako neskek izena eman dezakete, eta horretarako 679 671 415 telefono zenbakira dei- tu behar dute.

Ernioko lasterketa jokatuko da bihar, Trianguloatik hasita

Aralarko Adiskideak elkarteak antolatzen du; parte-hartzaileek 20 kilometroko ibilbidea egin behar dute

I. Garcia Tolosa

Bihar jokatuko da Aralarko Adis- kideak elkarteak bi urtez behin antolatzen duen Ernioko laster- keta. Parte-hartzaileak 10:00etan abiatuko dira Tolosako Triangu- lo plaza- tik. Ernio mendiko guru- tzeraino igo eta berriz plazara iri- tsi behar dute. Guztira hamar ki- lometro aldapan gora eta beste hainbeste aldapan behera egin behar dituzte, eta mila metro igo behar dituzte.

Orain bi urteko irabazlea Wal- ter Becerra izan zen, baina ez zuen lortu Fernando Etxegaraik 2007an jarri zuen marka hobe- tzea. Etxegaraik 1:24:44 egin zuen eta Becerrak 1:27:58ko denbora behar izan zuen ibilbidea egiteko.



Nerea Amilibiak irabazi du azken hiru alditan. ESTI EZEIZA

Emakumezkoen mailari dagokio- nez, azken hiru alditan Nerea Amilibia zizurkildarrak irabazi du proba. Orain lau urte ezarri zuen marka: 1:48:09. Azkeneko proban 76 korrikalarik parte har- tu zuten, horietatik bi emaku- mezkoak.

Epaileak aske utzi du Oier Eizmendi, baina auzibideak aurrera jarraitzen du

Leitzako alkateak eta beste bi herritarrek atzo deklaratu zuten Madrilén; herritarrek babesa adierazi diete

Iñigo Terradillos Leitza

Oier Eizmendi Leitzako alkateak eta jaietako txupinazoan parte hartu zuten Saioa Iraola eta Lurdes Juantorena herritarrek atzo goizean deklaratu zuten Madrilén, Auzitegi Nazionalan. «Terrorismoa goratzeagatik» daude inputaturik; alkatea, jaietako egitarauan euskal presoan aldeko topa antolatzeagatik eta beste biak txupinazoan preso baten argakia kamisetan eramateagatik eta euskal presoan aldeko mezua zabaltzeagatik. Bada, epailearen aurrean deklaratu eta aske geratu ziren hirurak, baina, auzibideak aurrera jarraituko du.

Auzitegi Nazionaletik irtetean Oier Eizmendi Leitzako alkateak bai bera, beste bi auzipetuek eta abokatua ere «lasai eta gustura» daudela adierazi zuen. Epaileak jaien antolaketaren inguruan



Jende ugari mobilizatu zen atzo eguerdian hiru leitzarrei babesa adierazteko. I. TERRADILLOS



Koalizioaren ibilbidea zikindu nahi duen muntaia da; prozesuari trabak jartzen ari dira»

MAIORGA RAMIREZ
Nafarroako EAKo presidentea

galdetzean, berak bi hilabete baino ez zeramatzala alkatetzan azaldu zion, eta horregatik ez zuela esku-hartze handirik izan. Bestalde, presoan aldeko solidarioak plazara irten zirenean bera udal-etxe barruan zegoela adierazi zion, harrera ekitaldi ofizialean, eta ez zuela, beraz, une horretan plazan gertatzen ari zen ezer ikusi.

Leitzako alkateak, bestalde, au-

zia hasi zenetik herritarrengandik jaso duten babesa eskertu nahi izan zuen; «auzia salatzeako antolatutako mobilizazioetan jende ugari parte hartu du, euren laguntza eta animoak jaso ditugu, eta hori horrelako uneetan asko eskertzen da».

Pablo Ruz epaileak erabakiko du orain auzia artxibatu edota epaiketari ekin.

Madrilen babesa

Nafarroako EAKo presidentea eta Bilduko parlamentari Maiorga Ramirezek salatu du Oier Eizmendi Leitzako alkatearen aurkakako inputazioa «koalizioaren ibilbidea zikindu nahi duen muntaia» dela. «Akusazioek ez dute ez hanka ez buru» esan du Ramirez-

zek, «jazarpen eta muntaia hauekin lortzen duten gauza bakarra da euskal jendartearen eskubide zibil eta sozialen aurkako eraso edo indarkeriak lekurik ez duen bake eta normalizaziorako prozesu atzerazekin bati trabak jaretzea».

Nafarroako Gobernuari eta Estatuko erakundeetara eskatu die egoerak eskatzen duen mailan egon daitezela eta akusazio faltsuak egiteko garaia iraganerako utz ditzatela. Ramirezek Auzitegi Nazionalaren atarian egin zituen adierazpenak. Alkateari eta deklaratzera joan behar izan duten beste bi herritarrei laguntzera joan zen Ramirez Madrilera, Bilduko parlamentari den Aitziber Sarasolarekin batera.

Elkartasuna Leitzan

Herritarrek ere elkartasuna adierazi zieten auzipetuei, Madrilén deklaratzeko ari ziren bitartean. Izan ere, eguerdian lanuztera deituta zeuden leitzarrek auzia salatu eta babesa emate aldera. Bada, Auzipetuekiko babes taldeak adierazi duenez, «herriko denda, taberna eta jatetxe gehienek bat egin zuten lanuztearekin, eta lantokietan ere nabaria izan da herri-kiideekiko babesa». Halaber, lanuztearekin batera, elkarretaratzeko ere egin zituzten, Gurdia Zibilaren begiradapean. 80 lagun inguruk hartu zuten parte, *Herria eraikitzen jarraituz, Leitze aurrera!*, *Audientzia Nazionala Stop!* edota *Paken utzi Leitze!* bezalako mezuak aldarrikatuz.

Herriko hiru gune garbituko dituzte bihar auzolanean

Erredakzioa Leitza

Nafarroako Ingurumen Balibideen Zentroen Fundazioak (Crana) antolatutako eta Leitzako Udalak babestuta, bihar auzolanean herriko hainbat gune garbituko dituzte. Hain zuzen ere, Erasote auzoan kokaturiko Batan presan egingo dute lan, nekazaritza-eskolaren parean geratzen den erreka zatian eta Leitzaran errekan beheko errotan hasita.

08:00etatik 13:00etara jardungo dira animatzen diren herritarrek, eta tartean udalak jarritako gosariak gozatzeko dute. Plazan egin dute hitzordua, 08:00etan.

Aitor Etxarri udaleko zinegotziak azaltzen duenez, fundazio honen egitekoa Nafarroako erreken biodibertsitatea sustatzea da. «Helburu horrekin Leitzako Udalak bat egin du ekimenarekin azken urteetan, eta beste xede bat ere bultzatzen dugu, herritarrek gaiaren inguruan sentsibilizatzeko eta auzolana bultzatzeko».

Bestalde, larunbateko ekimenaz gain, gaur hitzaldia izango da udal-etxean, 20:00etan. Crana fundazioko Nerea de Ostaitz ariko da erreka garbitzearen garrantziaz eta euren egitekoaz.

Igande honetan itxiko dituzte igerilekuko ateak

Erredakzioa Leitza

Leitzako igerilekua igande honetan, hilaren 11n itxiko dute. Hori dela eta, bertako arduradunek erabiltzaileei dei egin diete, bertan aulkiak eta badituzte egun horretarako erretira ditzatela eskatuz.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIK

- **Ibarra.** Hilaren 17an, larunbatan, Euskal Herria Eguna ospatuko dute Ibarra. Herri bazkari-rako txartelak salgai jarri dituzte, Danon Txokoa eta Atari tabernetan. Helduen txartelak 12 euro balio ditu, eta haurrenak 6 euro.
- **Ibarra.** Kirol ikastaroetan izena emateko epea zabalik aurkitzen da Belabieta kiroldegian (943 67 15 44). Pilota ikastaroen kasuan, Sendi Ekintzara joan beharko da, edo 625 707 829 telefono zenbakira deitu.
- **Villabona.** Oinkari dantza taldean izena emateko aukera zabalik dago. Horretarako 660 13 93 80 telefono zenbakira deitu behar da. Ikastaroetako ordutegiak ikusteko, www.oinkari.net web orrian sartu behar da, al-bisteak atalean klikatuz.
- **Tolosa.** Aitzol Udal Euskaltegian izena emateko aukera zabalik dago. Matrikula epea irai-

laren 16ra bitarte egongo da irekita. Tolosan errolatutako ikasleek diru laguntzak izango dituzte, udalaren eskutik. Izena emateko, apeadero ondoan dagoen euskaltegiara joan behar da.

■ **Leitza.** Euskara ikasleentzat diru laguntzak eskainiko ditu Leitza Udalak. Irailaren 15a baino lehen egin beharko dituzte eskariak ikasleek.

■ **Leitza.** Talo Eguna 10:00etatik aurrera. Herriko plazan talo egileen eta artisauen postuak egongo dira. Lehiaketek eta talo platerak ere bere lekua edukiko dute.

KIROLAK

- **Amezket.** Joxean Tolosa Pilota Txapelketaren finalak hilaren 11n, igandean, jokatu dira 17:00etatik aurrera. Bertan eskualdeko bi pilotari egongo dira, Jaka lizartzarra eta Olano are-soarra.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Morant Rosalia, Zabalzarreta 1. 943 67 38 49.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

BIHAR

- **Ibarra.** Leyre Lejeune. Euskal Herria 46, 943 67 32 74.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

ETZI

- **Tolosa.** Morant Rosalia, Zabalzarreta 1. 943 67 38 49.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

ETZIDAMU

- **Tolosa.** Olarreaga Marta. Martin Iraola kalea, 10. 943 67 24 38.
- **Lekunberri.** Azpiroz MA. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Irudia XIV. HITZA Argazki Lehiaketa



KAIOA MODELO LANAK EGITEN, LEKEITION

Argazki lehiaketan gure kostaldea sarritan irteten da. Bere edertasunak erretratu ederrak eskaintzen dizkigu, eta oraingoan, Blas Urkizu tolosarrak

modelo paregabea aurkitu du Lekeition: paparra aterata irudian ikusten dugun kaioa, argazkilariari begira-begira gainera. BLAS URKIZU

Agurak



Zorionak!

Oier eta Eñaut. Bihar, irailak 10, 7 urte beteko dituzue. Ondo-ondo pasa eta segi beti bezain jator izaten! Muxu handi bat, aitatxo eta amaxoren partetik.



Zorionak bikote!

Ondo pasa zuen 25. ezkon urteurrenean.

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO** hitza info
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

**tolosaldea.hitza.info
leitzaaldea.hitza.info**

eraman/bidaliz izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behe, atzea, 20400 Tolosa

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

■ Izen-abizenak:

■ NA:

■ Lanbidea:

■ Jaioteguna:

■ Helbidea:

■ Herria:

■ P.K.:

■ Tel.:

■ Posta elektronikoa:

■ Kontu zenbakia:

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31 32 33 34 35 36 37 38 39 40 41 42 43 44 45 46 47 48 49 50 51 52 53 54 55 56 57 58 59 60 61 62 63 64 65 66 67 68 69 70 71 72 73 74 75 76 77 78 79 80 81 82 83 84 85 86 87 88 89 90 91 92 93 94 95 96 97 98 99 00